

## HAUR LITERATURA


## Barneko haserrea

Xabier ETXANIZ ERLE

**B**ehin baino gehiagotan aipatu izan dugu argitaletxe txikiak egiten duten ekarpen aberasgarria eskal letretan. Baita Iparraideko argitaletxeen garrantzia batez ere Gipuzkoan, eta neurri txikiago batean Bizkaian, zentratuta da-goen eskaintza osatzeko, ikuspegi ezberdinez eta hizkera ugariagoz osatzeko, eskal letren eskaintza.

“Haserre gorria” lana dugu honen adibide berri bat. IKAS taldekoek bulettatutako bildumetan (berriki Madasa album zoragariarekin egin duten bezala) eskal haurrentzako eskaintza handitzeko. Liburuak orrietan barna sartu aurretik, irakurleak lan honetako protagonista nagusiak aurki ditzake azalean bertan: Peio eta munstro gorria edo Gauza. Ikusleak aurreikuspen batzuk egin ditzake horrela, are gehiago ematen du Peio ikaratua dugula munstroaren aurrean. Istoriako barnerratu ahala, ordea, ikusiko dugu kontua oso bestelakoa dela.

«Peioik biziki egun txarra iragana zuen». Horrela ekiten dio egileak istorioa kontatzeari, horrela eta Peio muti-

**HASERRE GORRIA**

Egilea: Mirielle d'Allance.

Irudiak: Mirielle d'Allance.

Itzulpena: Alice Casenave eta IKASeko lanekideak.

Argitaletxea: Kas, Uztartze, 2016.

Orrialde kopurua: 26 orri.

Salneurria: 12 euro.

koaren irudiarekin. Buru makur, zapa-tilak zikinak, eskuetan pilota eta teniseko erraketa apurtua... Mutikoaren haserrea ez da berehala baretuko, eta are okerrago jarriko da giroa atak eskainitako espinakak ikustearekin. Ez omen da hori Peioaren gustuko afaria. Aitak orduan ganberara igorriko du mutikoa: «Habil ganberara eta handik itzuliko haiz lasaitu ondano». Eta hain zuzen, ganberan aurkituko du edo topo egingo du Peioik munstro gorriarekin; bere barnetik, tripetatik, atera den munstro gorriarekin.

Mirielle d'Allancek istorio dibertigarria eskaintzen digu, gure sentimenduei nor-tasuna emanez, pertsonifikatuz. Peioaren haserreak, munstroak edo Gauzak, dena apurtzeari ekingo dio, aurrean duen guztia, bai eta Peioaren oso gustuko diren hainbat eta hainbat gauza. Eta hortxe izango ditugu biak borrokan. Peio eta bere haserrea, burua eta sabela. «Nn... nahi dukan guztia» egiteko baimena eman dion buruak laster ikusiko du ohe-gainekoa, oheburuko argia edo liburuak bota ondoren Gauzak, munstroak, jostailuen kutxara hurbiltzen dituela bere urratsak. Hurbildu eta bertakoa ere bota eta hausten hasi!!!

Kolore simpleak eta argiak erabiltzen ditu egileak, testu labur eta iradokitzaile ederki osatzen dutenak. Ikusleak, horrela, gertakarien berri jasotzen duen bitartean, ikusi ahal izango du Peioaren baitan gertatzen ari den aldaketa. Hasi-erako haserrea harridura eta azkenean lasaitasuna bilakatuko da; hori bai, munstro gorria kutxa barruan sartu eta gero.

Liburu gomendagarria eta egokia da planteatzen den gaia aztertzeke, haurren jokabidea, edo gurasoena, haserre egoeretan; eta liburu oso aproposa haurrei kontatzeko, erakusteko istorioa orrietako irudien bidez. Alde horretatik eskertzekoa da ere kontaktizuna entzungai egotea (IKASen web orrian edo kon-trazaleko aurkitzailearen bidez). Agian, akatsen bat aipatzekotan hitzegi aldetik hegoaldekoei arrotz samarrak gertatzen zaizkigun hitz batzuk ageri direla (bakar batzuk), baina liburuaren tonua harra-patzeko beharrezkoak, Peio Gauza kuttaxtoan sartu ondoren, ohe-gainekoa eta kotxea eskuetan dituela, eskailera goitik irribarrez ari denean bezala: «Aita? Desertarik bada?». Izan ere, borroka luzearen ondoren, zer postre goxoa baiten hobea!!!